

JAUNGOIKO-GIZONDUAREN JAYOTZEA



AMALAUDUNA



Ea aingeruak, kantau goyetan zuek gloriak,
 Ea artzaiñak, bildoscho bana bizkarretan,
 Eta kaikuak arturik esnez bete betiak,
 Baita makillak lagungarritzat eskuetan;
 Erdue *ujujuz* atsegindurik baso-mendiak,
 Saltoz irago errekachoak aide-aidetan,
 Dontzella batek argitaratu daben Semiak
 Gabean jarri gaituzalako eguzkitan.

Eskintsariok emon Printzipe aïñ Altsuari,
 Lastatzen pobre billatu arren otzak kikill,
 Dakartzalako libertadea gaur gizonari,
 Luzbelek eukan nausitasuna eginda ill;
 Zeñetarako bere Jaungoiko izateari,
 Ichi bagarik jayo egin dan ume umill.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1894-ko Abenduan.

